

PROIEKTUA

LEIOAK JAUREGI BAT DAUKA

Artatza jauregia 1914. urtean hasi ziren eraikitzen, Manuel María de Smith Ybarra arkitektoak Víctor Chávarri Anduiza Trianoko markesa zen industrialariarentzat diseinutako proiektua oinarri zela.

Izan ere, 1910eko hamarkadaren erdialdetik 1930eko hamarkadara arteko hazkunde ekonomikoa eta haren atzetik bizi izan zen pizkunde artistikoaren ondorio da Artatza jauregia, bai eta Getxon gauzatu ziren etxe ugariaren proiektuak ere. Dena den, zalan-tzarik gabe, Artatza jauregia da Manuel María de Smithen lan onena eta adierazgarriena, Ana Erregina Ingalaterrako estiloa delakoaren bertoko interpretazio garbia.

Eraikina ia 300.000 m² dituen orube zabal, irregular eta gorabeheratsu batean dago, Artatzako hareatzen, etxeari izena ematen dion lekuan. Estatuak lurak enkantean jarritu zituenean 1894an, familiak eskuratu zituen. Víctor Chávarriren emazteak, María Josefa Poveda y Echagüek, aukeratu zuen etxea eraikitzeko kokaleku bikain hori.



ZATOK EZAGUTZERA

KANPOALDEA

Eraikinak U formako oinplanoa du, eta hegoalderantz eta mendebalderantz begira eraikita dago. Eraikinaren kanpoaldean, Ingalaterrako estiloaren ezaugarriak argi eta garbi igartzen dira: esaterako, estalki eta tximinien bolumenak era askotan konbinatzea eta multzo guztia asimetrikoa izatea, harria eta bistako adreilu gorria konbinatzea, leihateetarako hainbat estilo hartzea. Manuel María de Smith arkitektoak Ingalaterrako estiloari bere ukitua eman zion, estilo neoeuskaldunaren ezaugarriak sarturik, hala nola zurezko bilbadurak eta estalkien malda handiagoa.

Eraikin guztia ikusgarria da, eta hala zen ingurua ere: han ziren croquet-ean jokatzeko zelaia, tenis-pistak, zuhaitzi batek babestutako ortua, larreak, berotegia, ur-tanga bat eta oilategiak. Eraikina lorategiz inguratuta zegoen. Lorategien ideia Ingalaterrako etxe viktoriar handietako lorategietatik hartu, eta egin zutenean, gunee independenteetan zaititu zituzten. Haietan pergolak, arrosadiak, harrizko eta zur margotuzko jesarlekuak eta eskultura grekoen kopiak ere –Mironen diskoboloa, adibidez, oraindik ere irauten duena– jarri zituzten. Bi urmael ere baziren: batean, nenufarrak zeuden; besteak, ontziralekuak zeukan. Horren guztiaren inguruan jokatzeko zuten aisialdian jauregiaren jabeek eta beste burges nabarmen batzuek berderatzi zuten golf-zelai batean, Getxo eta Leioako lurretan. Horma bat zegoen Artatza jauregiaren lur guztia inguratzen, eta etxera heltzeko, albo banatan zuhaitzak zituen bidea hartzen zen, lehoien irudiek gordetako atezaindegitik aurrera.



BARRUALDEA

Artatza jauregiaren gelak, oso argitsuak denak ere, lau gunee independenteetan (gela nagusiak, zerbitzarien gunea, gonbidatuen gelak eta nursery delakoa, umeentzako gunea) banatzen dira solairuz solairu.

Behe-solairuan, karrerape nagusiaren tudor estiloko arkuan familiaren armarria nabarmentzen da. Karrerapearen ondoren dagoen atarte zabala kapera eder eta bulego batekin lotuta dago, bai eta goi-galeria bat duen atondo zoragarriekin ere. Galeriako beirate beruneztatu eta kasetoidura apartak egiteko ideia, Valladolideko San Gregorio komentutik hartu zuten. Jarraian, bi egongela tximiniadun handi eta jangela bat daude, denak ere serre edo kristalezko lorategi-gela baten bitartez lotuta. Solairu honetan bazenuden umeentzako jangela bat eta egongelak ere. Horrez gain, egongela, jantzitegia eta bainugela zuten gonbidatuentzako logelak zeuden solairu honetan. Gela horietako bakoitzak kanpotik bere sarrera berezia zuen. Erdialdeak zerbitzarien gelak hartzen zituen. Alde horrek sarrera berezia eta gela zabalak zituen (sukaldea, harrikoa egiteko tokia, jaki-tokia, zerbitzarietzako jangela eta ikuztegia), eta haietatik sotoan sartzen ziren, non hau guztia zeukaten: upategia, jaki-tokia, berokuntza-gela eta ur berorakoa, ikaztegi eta egurtegia, eta trastelekua. Bizilekuaren bestaldean garajea, ukui luak, zalditegiak eta lantegia zeuden.



Lehen-solairuan, gunee zehaztu eta independenteetan jarrita zeuden gela nagusiak, gonbidatuenak, umeenak eta zerbitzarien gelak, behe-solairuaren banaketa bera jarraituz. Solairu honetan, erizaindegi bat ere bazegoen.

Arkitekturan, intimitate eta pribatutasun nahian ez ezik, Ingalaterrako eragina barruko dekorazioan ere antzeman zen –dekorazioarako ideia Arts and Crafts mugimendutik hartuta–, eta denak jarraitzen zuen Ingalaterran boladan zegoen joera, burges askoren etxeetan hainbeste eragin zuena: sabai lauak eta igeltsuzko moldura soilak, horma tapizdunak, paperezatuak edo panelez apainduak, marmolezko zorruak, zur noblezko parketa eta oholtza, altzariak, bai eta komun-ontziak ere.



ARTATZAKO ISTORIOAK

Etxea 1918an zabaldu zuten ofizialki –eraikitzeko lanak hasi eta lau urtera–, Alfontso XIII.a erregeak bisitaldia egin zuenean. Gero, Bizkaira etortzen zen bakoitzean, egun batzuk egiten zituen bertan.

Familiak udako sasoi eta udazkenaren aldi bat jauregian igarotzen zituen. Izan ere, negozioen ardura zela eta, Víctor Chavarri Madrilen igarotzen zuen negua, astean bizpahiru egunez Bilbon egoten bazen ere, hemen zeuzkan enpresa frankoren kontuengatik. Errepublikaren garaian, familia urte guztian bizi zen jauregian.

Gerra Zibilean, jauregia gudarien batailoien kuartela izan zen. Ostean, Chávarri familiaren etxea eta haien ondorengoek udaldia igarotzeko tokia izaten jarraitu zuen 1979ra arte. Urte luzez, orduko gizarte eta politikaren pertsona ospetsuenen bisitaldiak izan ziren bertan, eta haien erakusgarri dira jauregiaren liburuan idatzitako sinadurak.

Egun, 1989. urtetik, Eusko Jaurlaritzak da eraikinaren jabe; Bizkaiko Foru Aldundiak, aldiz, lorategien ardura hartu du, eta parke publiko bihurtu ditu.



LEIOA

bizi GURE ONDAREA ARTATZA JAUREGIA

